



B-100 KONTROLAGAILUEN INSTALAZIOA

Windows XPn kontrolagailua instalatzea

1. Sartu PCMCIA txartela eramangariaren edo PCaren slot-ean.
2. Windows-ek PCMCIA txartela detektatzen duenean, *Aurkitutako hardware berriaren laguntzailea*-ren elkarizketa-koadroa azaltzen da. Hautatu **Instalatu softwarea automatikoki (gomendatuta)** eta sartu kontrolagailuaren CD-ROMa CD-ROM unitatean eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.



3. Windows-ek fitzategiak disko gogorrean kopiatuko ditu. Hurrengo pantaila softwarearen instalazioa bukatzean agertuko da. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.
4. Sistema automatikoki hasiko da Wireless LAN utilitatea instalatzen. Horretarako, joan CD-ROMeko erabiltzailearen eskuliburuko 4. atalera.




Windows 2000n kontrolagailua instalatzea

Sartu PCMCIA txartela eramangariaren edo PCaren slot-ean.

Windows 2000k USB egokigailua detektatzean, leiho bat azalduko da: *Hardware berri bat aurkitu da*. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen hasteko.




Leiho batean, instalatzeko zein metodo erabili nahi duzun galdetuko dizu. Sakatu **Bilatu kontrolagailu egoki bat nire gailuarentzat (gomendatuta)** eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




4. Egiaztatu **CD-ROM unitatea** hautatuta dagoela eta sartu CDa unitate horretan; gero, sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




5. Hurrengo leihoan bilaketaren emaitzak azalduko dira. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen segitzeko.



6. Leiho hau azalduko da: Sakatu **Bai** aurrera segitzeko.



7. Windows-ek softwarea instalatzen amaitu du. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.
8. Sistema automatikoki hasiko da utilitatea instalatzen. Ikus CD-ROMeko erabiltzailearen eskuliburuko 4. atala.



Windows 98n kontrolagailua instalatzea

1. Sartu PCMCIA txartela eramangarriaren edo PCaren slot-ean.
2. Windows 98k PCMCIA txartela detektatzean, leiho bat azalduko da: *Hardware berria gehitzeko laguntzailea*. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen segitzeko.




3. Leiho batean, instalatzeko zein metodo erabili nahi duzun galdetuko dizu. Sakatu **Bilatu zure gailuarentzako kontrolagailurik egokiena (gomendatuta)** eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




4. Ziurtatu CD-ROM unitatea hautatuta dagoela. Sartu CDa unitate horretan eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




5. Hurrengo leihoan bilaketaren emaitzak azalduko dira. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen segitzeko.



6. Windows 98k fitxategiak disko gogorrean kopiatuko ditu. Hurrengo leihoan softwarearen instalazioa amaitu dela adieraziko du. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.




7. Hurrengo leihoan ordenagailua berrabiaraztea eskatuko zaizu instalazioa amaitzeko. Sakatu **Bai** sistema berrabiarazteko. Berrabiarazi eta gero, Wireless utilitatea automatikoki instalatuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo 4. kapitulura.




Windows MEn kontrolagailua instalatzea

1. Sartu PCMCIA txartela eramangarriaren edo PCaren slot-ean.
2. Windows MEk PCMCIA txartela detektatzean, leiho bat azalduko da: *Hardware berria gehitzeko laguntzailea*. Hautatu **Bilatu automatikoki kontrolagailu egokia (gomendatuta)** eta sartu kontrolagailuaren CD-ROMa CD-ROM unitatean eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.



3. Sistemak konfigurazio-fitxategiak aurkituko ditu eta fitxategiak disko gogorrean kopiatzeko jarraibideei jarraituko die. Hurrengo leihoa softwarearen instalazioa bukatzean agertuko da. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.



4. Hurrengo leihoan ordenagailua berrabiaraztea eskatuko zaizu hardwarea konfigurazten amaitzeko. Sakatu **Bai** sistema berrabiarazteko. Berrabiarazi eta gero, Wireless utilitatea automatikoki instalatuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo 4. kapitulura.

